

OSASUNAREN KONTUA. EAE. ELAren BALORAZIOA

Bilbon, 2008ko maiatzaren 7an



0.- SARRERA.

Eustatek (Euskal Estatistika Erakundeak) argitaratzen duen Osasunaren Kontuan jasotako aztergaiak aldatu egin dira, eta euskal osasun-sistemari buruzko informazioa ematetik menpetasun-egoeran dauden pertsonentzako iraupen luzeko osasun-laguntzako zainketak ere (telealarma programak, etxeko laguntza, adineko edo gaitasun urrituko pertsonentzako eguneko zentroak eta egoitzak) jasotzen dituen azterketa eskaintzera igaro da.


Zalantza barik, menpetasun-egoeran daudenentzako zainketei buruzko informazioa aztertzea beharrezkoa da, batez ere horrelako zainketen garrantzia gero eta handiagoa izango dela kontuan hartuta. Baina Osasunaren Kontu berriko informazioak ez du zertan baztertu orain arte eman izan dena. Horrela, aurrerantzean ez dira argitara emango Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) **osasun-sistemaren egoera eta bilakaera aztertzea ahalbidetzen ziguten hainbat argibide garrantzitsu**. ELAren ustez, informazio-galera hori ez da halabeharrezkoa, Eustatek, **Eusko Jaurlaritzak osasun arloan darabilen jokamoldea agerian utz lezakeen informazioa ezkutatzearren, berariaz erabakitako jarrera** baizik.

Dena den, oraingo Osasunaren Kontuak ere EAEko osasunaren adierazle batzuen inguruko hainbat ondorio interesgarri ateratzeko aukera ematen digu, bai 2006ko urtealdiari buruz, bai 2000tik aurrerako bilakaerari dagokionez. Nazioarteko konparaketa egiteko, 2005eko datuak aztertuko ditugu, une honetan dagoen informazioa urte horretakoa da eta.

1.- OSASUNeko GASTU PRIBATUAREN PORTZENTAJEA HANDIA ETA HAZKORRA DA EAEn.

EAEn, 2006an osasunean gastatutako diruaren **%27,8 familiek hartu behar izan zuten euren gain**, eta gainerako %72,2a instituzioek finantzatu zuten.

OSASUN GASTU ARRUNTA, FINANTZATZAILEEN ARABERA BANATUA
(GUZTIZKOAREN %). 2006 (a)



Iturria: ELAren azterketa, EAEko Osasunaren Kontua oinarri hartuta (1).

Osasun publikoa babesteko erantzukizuna dutenek **osasun pribatuaren interes ekonomikoei mesede egiteko** taxutua dirudien politika neoliberalak, eskuindarra, darabilte. Datuek argi erakusten dute.

Ezbairik gabe, gobernatzen gaituztenek badakite zertan ari diren. Osasun publikora baliabide gutxi bideratuz, jendearen bizkar uzten da osasun-gastuen zati handi bat, estaldura publiko eskasaren eta itxaron-zerrenda luzeen eraginez.

Estatistikaren bidez, gastu publikoak eta pribatuak osasuneko guztizko gastuan duten pisuaren bilakaera ere aztertu ahal digu. Hona hemen datuetatik atera daitekeen ondorioz aipagarriena: gastu publikoari guztizkoan dagokion portzentajea urrituz doa, eta, beraz, **familiek egin beharreko gastu-proportzioa gero eta handiagoa da**. Zehazki, 2000tik 2006ra artean, familiek euren gain hartu behar izan duten gastua guztizkoaren %27,4tik %27,8ra hazi da, instituzioek finantzatzeko dutena %72,6tik %72,2ra murriztu delarik.

OSASUNA FINANTZATZEKO GASTU PUBLIKOA ETA PRIBATUA


(GUZTIZKOAREN %). EAE, 2000-2006.

	2000	2006 (a)
GASTU PUBLIKOA / GUZTIZKOAK	72,6	72,2
GASTU PRIBATUA / GUZTIZKOAK	27,4	27,8

Iturria: EAEko Osasunaren Kontua (2).

Zergatik diogu EAEn osasuneko gastu pribatuaren portzentajea handia dela, eta gastu publikoarena txikia? Gastu publikoa beste estatu batzuetakoarekin alderatzean ikus daitekeenez, **EAEn finantzaketa publikoaren pisua ELGAri** (Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeari) buruzko informazioan ageri diren **estatu gehienetakoa baino txikiagoa da**. Zehatz esateko, EAEko gastu publikoari guztizko gastuan dagokion portzentajea Estatu Batuetakoa, Greziakoa, Suitzakoa, Kanadakoa eta Espainiako Estatukoa baino handiagoa da, baina gure inguru ekonomikoko herrialde gehienetakoa (Alemania, Austria, Suedia, Frantzia, Italia eta Norvegiakoa, besteak beste) baino txikiagoa.

OSASUN GASTU PUBLIKOA (GUZTIZKO OSASUN GASTUAREN %). ELGA, 2005



Iturria: ELAren azterketa, EAEko Osasunaren Kontua oinarri hartuta (3).


Datu horiek, hala ere, ez dira osasun pribatuaren aldeko apustua islatzen duten bakarrak. Izan ere, gastu publikoaren gero eta zati handiagoa negozio pribatuak finantzatzera bideratzen da. Tamalez, alderdi horren gaineko informazio fidagarririk ez badago ere, zalantzan jarri ezinezko errealitatea da hori.

2.- OSASUN GASTU PUBLIKOARI ABERASTASUNEAN DAGOKION PISUA **OSO URRIA DA EAEn.**

Osasunaren finantzaketa iturri publikoetatik ala pribatuetatik datorren alde batera utzita, gastu publikoari sortutako aberastasunean dagokion portzentajea aztertzen jarraituko dugu. 2005eko datuen arabera, aztertutako herrialde guztietatik, **Greziak bakarrik** zuzentzen du EAEk baino aberastasun **portzentaje txikiagoa** osasuneko gastu publikora: Barne Produktu Gordinaren (BPGaren) %4,3, hain zuzen ere, EAEn xede horretarako baliatzen dena **BPGaren %5** delarik.

Osasun publikoan gastatzen den aberastasun portzentajea EAEn baino handiagoa da bai estatu aberatsagoetan (adibidez, BPGaren %8,9 Frantziako Estatuan eta %8,2 Alemanian), bai estatu pobreagoetan (BPGaren %7,4 Portugalen eta %5,9 Espainiako Estatuan, esaterako). Bereziki nabarmengarria da AEBetan bertan ere gurean baino aberastasun portzentaje handiagoa (BPGaren %6,9) zuzentzen dela osasunaren finantzaketa publikora.

OSASUNEKO GASTU PUBLIKOA (BPGaren %). ELGA, 2005




Iturria: ELAren azterketa, EAEko Osasunaren Kontua oinarri hartuta (4).

Hurrengo grafikoak biztanleko BPGaren eta biztanleko osasun-gastu publikoaren arteko erlazioa erakusten du (biak EAP (\$) adierazlearen arabera neurtu dira, Erosteko Ahalmenaren Parekotasunaren arabera, alegia). Joera-lerroari esker, erraz bistaratu daiteke estatu bakoitzak biztanleko egiten duen gastu publikoa biztanleko BPGaren arabera “legokiokkeenaren” gainetik ala azpitik dagoen. Lerroaren azpitik egoteak **sortzen den aberastasunaren aldean gutxi gastatzen dela** adierazten du.

Bistan dagoenez, EAEk dagokiona baino gastu publiko txikiagoa egiten du biztanleko. Aldiz, EAEkoaren antzeko biztanleko BPGa duten hainbat estaturik (Suitzak, Danimarkak, Austriak, Islandiak,...) gastu publiko nabarmenki handiagoa egiten dute, eta lerroaz beste aldean ageri dira. Era berean, biztanleko BPG txikiagoa duten beste estatu batzuek ere —hala nola Finlandiak eta Italiak— EAEk baino diru gehiago bideratzen dute gastu publikora biztanle bakoitzeko. Grafikoak erakusten duenez, Grezia da bi aldagai horien artean EAEk baino jauzi negatibo handiagoa agertzen duen lurralde bakarra.

BPG BIZTANLEKO ETA OSASUNEKO GASTU PUBLIKOA BIZTANLEKO (EAP (\$)).

ELGA, 2005



Iturria: ELAren azterketa, EAEko Osasunaren Kontua oinarri hartuta (5).

Beraz, edonondik begiratuta ere, eta Eusko Jaurlaritzaren adierazpen aizunen kontra, EAEn osasun publikoan egiten den gastua oso urria da. Argi dago, beraz, zein den osasun publikoa jasaten ari den narriatzearen funtsezko arrazoia.

3.- ONDORIOZTAPENAK

Datuetatik hainbat ondorio atera ditzakegu:

1. EAEn, osasun-gastuari **guztizko gastu publikoan** dagokion portzentajea **txikiagoa** da **ELGA**ri buruzko informazioan ageri diren estatuetako gehienetakoa baino.
2. Osasuneko gastu publikoaren pisuak ageri duen **beheranzko bilakaera xumeak** areagotu egiten du jautzia. Ondorioz, familiek portzentaje handia, eta hazkorra, gastatu behar dute osasunean.
3. EAEk **osasuneko gastu publikora** zuzentzen duen **BPG portzentajea** ELGAko txikienetakoa da.
4. Halaber, EAEn, biztanleko, osasunera bideratzen den gastu publikoa **aberastasunaren** arabera legokiokkeenaren **azpitik** eta ELGAko beste herrialde gehienek egiten duten gastutik oso urrun dago.

4.- PROPOSAMENAK

ELAren iritziz, behar-beharrezkoa da euskal instituzioek **osasunera bideratzen dituzten diru-partida publikoak askotxo handitzea** eta Europako mailetara hurbiltzea, EAEko aberastasunak aise ahalbidetzen du eta.

Horixe da osasun arloan nozitzen diren gabeziak apurka-apurka gainditzeko bide bakarra, bai osasun-sistemari, bai menpetasun-egoeran daudenentzako osasun-laguntzari dagokienez.

EAEk badu egoera hobetzeko besteko gastu-eskumena, bai eta zuzeneko zein zeharkako zergak biltzeko eskumena ere, ataza horri heltzeko behar den dirua lortzeari begira.

OHARRAK

(a): aurrerapena

(e): estimazioa

(d): metodologia ezberdina

(1),(3),(4),(5): Honako esteka honetan eskuratu daitezke:

http://www.eustat.es/elem/ele0004400/tbl0004407_c.html

(2): Honako esteka honetan eskuratu daiteke:

http://www.eustat.es/elem/ele0004400/not0004408_c.html